Dokumentu honen xedea da UPV/EHUko Psikologia Fakultateak eskaintzen dituen ikasketen azterketa eta balorazioa eskaintzea. Txosten hau oinarri hartuta, hobekuntza-plan bat egingo da, hautemandako gabeziak zuzentze aldera. Gabezia horiek 2012-13ko kudeaketa-txostenean jasotako 2013-14 kudeaketa-planean jasota daude (ikus erantsitako txostena).

**Donostia, 2013ko abenduaren 10a**

## INDIZEA

### **PSIKOLOGIAKO GRADUKO TITULUAREN TXOSTENA**

#### **EGINDAKO JARDUEREN LABURPENA**

#### **1. GRADUKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA PSIKOLOGIA FAKULTATEAN HAIEN SARRERA ERRAZTEKO JARDUERAK.....3**

- 1.1.- Ikasle berrien harrera .....3
- 1.2 .-Kideen arteko tutoretza.....3
- 1.3 .-Mugikortasun-programei buruzko informazioa.....4
- 1.4 .-Hautazkoei eta minorrei buruzko informazioa.....4
- 1.5 .-Practicumari eta kanpoko praktikei buruzko informazioa....4
- 1.6 .-Gradu amaierako lanari (gral) buruzko informazioa .....4

#### **2.- GAIAK KOORDINATZEKO JARDUERAK.....5**

#### **3.- TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK.....6**

- 3.1. Ikasketa-planean eginiko aldaketak.....6
- 3.2. Irakaskuntza-plangintza .....6
- 3.3. Kanpoko praktikak ezartzea laugarren mailan.....7
- 3.4. Laugarren mailako gral-a ezartzea.....7
- 3.5. Mugikortasuna.....7
- 3.6. Ikasleak laneratzeko ekimenak.....8
- 3.7. Psikologia-graduaren publizitatea egiteko jarduerak.....8
- 3.8. Iradokizunak, keak eta erreklamazioak.....9
- 3.9. Kalitatearen bermerako sistema (kbs) audit irizpideen arabera ezartzearen egiaztapena.....9

#### **BALIABIDEAK.....10**

BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA.....10

GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA.....11

#### **EMAITZAK:TITULUAREN JARRAIPENARI LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA.....11**

#### **1.- IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA.....11**

- 1.1.- Ikasleen eskaera.....11
- 1.2.- .Onartutako ikasleen kopurua eta profila.....11

#### **2.- IKASKETA-ERRENDIMENDUA.....12**

#### **3.- GOGOBEZETZEA.....12**

- 3.1.- Ikasleen gogobetetasuna.....12
- 3.2.-Irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen gogobetzeta.....14

#### **OSASUN-PSIKOLOGIA OROKORREKO MASTER TITULUAREN TXOSTENA.....15**

#### **OSASUN PSIKOLOGIA OROKORREKO MASTERRA DISEINATZEKO ETA EGIAZTATZEKO PROZESUA.....15**

#### **EKINTZEN PLANA 2013/14 IKASTURTERA.....16**



# **PSIKOLOGIAKO GRADUKO TITULUAREN TXOSTENA**

**TITULUAREN KUDEAKETA: 2012-13 IKASTURTEAN KALITATEA BERMATZEKO EGINIKO JARDUEREN LABURPENA**

2012-2013 ikasturtean Graduaren laugarren maila hasi, eta Lizentziaren bosgarren maila eman zen aldi berean. Jarraian, tituluaren kalitatea baloratzeko eta hobekuntza-ekintzak abian jartzeko zer jarduera egin diren azalduko dugu.

Eginiko jarduerak hiru multzotan banatuta deskribatzen dira: ikasleak orientatzeko jarduerak, gaiak koordinatzeko jarduerak eta irakaskuntza hobetzeko jarduerak.

## **1. GRADUKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA PSIKOLOGIA FAKULTATEAN HAIEN SARRERA ERRAZTEKO JARDUERAK**

### **1.1. IKASLE BERRIEN HARRERA**

Ikasle berrien harrera-ekitaldia Areto Nagusian egin zen, 2012ko irailaren 10ean. Jardunaldian dekanok, Ikasketen dekanordeak, Akademia Antolakuntzako dekanordeak eta Ikasleen Kontseiluko ordezkari batek parte hartu zuten. Harrera Gida banatu zen, eta haren edukiak azaldu zituzten:

- Fakultatearen Antolakuntza (ikasketa-, irakaskuntza- eta administrazio-egitura)
- Ikasketa-plana
- Zerbitzuak
- Arautegiak
- Ordutegiak

### **1.2 KIDEEN ARTEKO TUTORETZA**

Kideen arteko tutoretzaren xedea da Ikastegiko ikasle berrien integrazioa erraztea eta ikasle horientzat informazio garrantzitsua banatzea, goragoko mailetan dauden ikasleek emandako hitzaldien eta aholkuen bitartez. Ikasle tutoreen deialdia 2012ko ekain-uztailean egin zen.

Hirugarren mailatik aukeratutako ikasleek prestakuntza jaso zuten lehen mailako ikasleentzat interesgarriak diren gaietara buruz eta komunikazio-trebetasunetara buruz. Prestakuntza hori iraileko lehenengo astean eman zitzaion.

2012-2013 ikasturtean, kideen arteko tutoretza-prozesua abiatu zen irailean 6an eginiko bilera batez, eta ikasle berrien harrera-ekitaldian (hilak 10) tutoreak aurkeztu zituzten. Lehen lauhilekoan, hamabostero egin ziren saioak lehen mailako hiru taldeekin, bigarrenean, berriz, hilero.

Ikasketen dekanordeak eta lehen mailako koordinatzaileak koordinatu zuten prozesua.

Kideen arteko tutoretzari dagokionez, lehen mailako ikasleen gogobetetze-maila 6.5 puntukoa izan zen, 10 punturen artean.

### **1.3 MUGIKORTASUN-PROGRAMEI BURUZKO INFORMAZIOA**

2012ko abenduaren 13an, Nazioarteko Hedakuntzako dekanordeak mugikortasun-programei buruzko informazio-saio baterako deitu zituen ikasleak. Informazioa eman zen abian diren programei buruz, horietara sartzeko eskakizunei buruz, eta bete beharreko epeei eta izapideei buruz (Mugikortasun Prozedura).

### **1.4 HAUTAZKOEI ETA MINORREI BURUZKO INFORMAZIOA**

2012ko maiatzaren lehen astean, Akademia Antolakuntzako dekanordeak informazio-saio baterako deitu zituen bigarren mailako ikasleak, Psikologiako Graduaren hautazkoen eskaintzari buruzko eta hura lau minorretan antolatzeari buruzko informazioa emateko. Saioan, hirugarren eta laugarren mailan, nor bere curriculum diseinatzeko moduei buruzko argibideak eman zitzaizkien ikasleei.

### **1.5 PRACTICUMARI ETA KANPOKO PRAKTIKEI BURUZKO INFORMAZIOA**

2013ko otsailaren 27an, Kalitate eta Kanpoko Praktiken dekanordeak informazio-saio baterako deitu zituen hirugarren mailako ikasleak. Saioan informazioa eman zen practicumari buruz, kanpoko praktika kurrikularrak egiteko Ikastegiak eskainitako arloei buruz eta praktikako plazak eskatzeko eta esleitzeko prozedurari buruz. Era berean, borondatezko kanpoko praktikei eta horiek eskatzeko prozedurari buruzko informazioa eman zitzaien ikasleei.

### **1.6 GRADU AMAIERAKO LANARI (GRAL) BURUZKO INFORMAZIOA**

Joan den ikasturtearen amaieran (maiatzak 30), Ikasketen dekanordeak GRALari buruzko informazio-saio baterako deitu zituen hirugarren mailako ikasleak. Saio hartan, GRALaren arautegiari eta prozesuari buruzko informazioa banatu zuten, eta Fakultateko webgunean gai horren gainean eskura daitekeen informazioaren berri eman zuten (Arautegia, Ikaslearen Gida, etab.).

Irailean, sailtako zuzendariak bildu (12/9/13), eta GRALerako gaien eta zuzendarien eskaintza eskatu zitzaien. Urrian eskaintza argitaratu zen. 2012ko urriaren 16an, 2012-2013 ikasturterako izena ematea zabalik zegoela jakinarazi zitzaien ikasleei.

Azaroaren 8an, behin-behineko esleipena eta aldaketak egiteko epearen irekiera jakinarazi zitzaizkien ikasleei eta irakasleei. Abenduaren 14an, zuzendarien eta gaien behin betiko esleipena jakinarazi zitzaien ikasleei eta irakasleei.

2013ko apirilaren 10ean eta 11n, bilerak egin ziren hirugarren mailako ikasleekin, GRALari buruzko informazioa emateko.

Maiatzaren 21ean, GRALaren ebaluazioaren gaineko informazio-bilerak egin ziren, GRALeko zuzendariekin. Bileran, berariaz diseinatutako gaitasunen araberako ebaluazio-inprimaki bat aurkeztu zitzaizen zuzendariei, eta Sailek izendatutako epaimahaietako kideei, berriz, gaitasunen araberako ebaluazio-koadernoak.

## **2. GAIAK KOORDINATZEKO JARDUERAK**

Ikasturtearen hasieran, koordinazio-bilera orokor bat egin zen, koordinazio-prozesuari hasiera emateko, eta lehen hiru mailetako koordinatzaileei egin zitzaizen bilera horretarako deialdia.

Lauhileko bakoitzaren hasieran, 1., 2. eta 3. mailako koordinazio-bilerak egin ziren, irakasgaietako koordinatzaileekin. Bileretan, irakasgai bakoitzak zeharkako gaitasunei lotuta egin beharreko lanak diseinatzeko jarraitu zuten.

Lauhilekoen amaieran, maila bakoitzeko irakasleak eta ikasleen ordezkariak bildu zituzten, irakasgaien koordinazioari eta lauhilekoan sortutako arazoei lotutako alderdiak aztertzeke. Bilera horietan koordinazio-arazo hauek hauteman, eta aztertu zituzten:

1.- Irakasgai batzuetan irakasle guztiak ez dira benetan koordinatzen.

2.- Irakasgaien artean nolabaiteko deskoordinazioa dago, edukiei dagokienez.

Hautemandako lehen arazoari dagokionez, garrantzitsutzat jo zen irakasleengandik informazio ahal bezain zehatza jasotzea, irakasgai bakoitzaren koordinazio-mailari buruz. Horretarako, irakasle guztiek bete beharreko inprimaki bat egitea erabaki zuten, non informazio hori eta metodologia aktiboen erabilerari buruzkoa jasoko baitzen.

Bigarren arazoari dagokionez, beharrezkotzat jo zen sailak inplikatzeko, beren erantzukizuneko irakasgaien arteko gainezarpente teorikoak ezabatze aldera.

Beste gai batzuei dagokienez, beharrezkotzat jo zen oraindik egin gabe duten irakasleen taldeei honako hau gogoratzea: ikasleen gidetan sartu behar direla amaierako azterketa bidezko ebaluazioaren ezaugarriak eta irakasgai bakoitzerako proposatutako azterketa motak.

PSIKOPLAN plataformaren egiteko presentzialak eta ez-presentzialak koordinatzen jarraitu zuten, eta ekainean eta uztailan bilerak egin ziren irakasgaietako koordinatzaileekin, lan-karga ez-presentziala asteka egokitzeke eta lanen entregak eta proba partzialak lauhilekoan banatzeko.

Galdetegi bat diseinatu zen, irakasgaien hainbat alderdiren koordinazioari eta irakasgai/taldeetan metodologia aktiboen erabilerari buruzko informazio zehatza eskuratzeko.

2012-13 ikasturtean, minorren eta practicumerako sarrera teorikoko irakasgaien koordinazioa ezarri zen.

Ikasturtearen hasieran, enborreko irakasgaien % 82ren ikasleen gidak jarri zituzten webgunean. Gida horietan, irakasgaiari eta horiek ematen dituzten irakasleei buruzko informazioa emateaz gainera, honako hauek zehazten dira: irakasgaietako programa teorikoa eta praktikoa, irakasgaiari lotutako gaitasunak, eta ebaluazio-sistemak, nola jarraituak hala ikasketen eta gaitasunen amaierako ebaluazio bidezkoak (irakasgaien % 95).

Irakasleen Zuzendaritzak/Ikuskaritza Zerbitzuak Ikastegia zoriondu zuten, 2012-2013 ikasturterako webgunean argitaratutako ikasleen gidengatik.

Amaitzeko, 2013-2014 ikasturteko 1., 2. eta 3. mailako eta minorreko ikasleen gidak bildu, eta aztertu ziren.

### **3.- TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK**

#### **3.1.- IKASKETA-PLANEAN EGINIKO ALDAKETAK**

Lauhilekoa aldatu zen bi irakasgaitan: Erakundearen eta Lanaren Psikologia irakasgaia lehen lauhilekotik bigarrenera aldatu zen, eta Prebentzioa eta Esku-hartzea Hezkuntzan irakasgaia, berriz, bigarren lauhilekotik lehenengora. Aldaketaren xedea izan zen irakaskuntza bi lauhilekoetan berriro banatzea eta horrela sail jakin batzuetan irakaskuntza gehiegi ez metatzea lauhileko bakarrean, horrek zailtasunak sortzen baitzituen irakaslana irakasleen artean banatzeko unean.

Ikasleen eskaerari erantzunez eta lehen eta bigarren zikloko graduako Irakaskuntzen Gestio Arautegiaren arabera, Ikasketa Planean sartu zen gehienez hautazko sei kreditu onartuko zirela, Curriculumez Gaindiko Kanpoko Praktika Akademikoak egitearen truke.

#### **3.2.- IRAKASKUNTZA-PLANGINTZA**

2012-13 ikasturtean, aldaketak egin ziren ordutegiak eratzeko sisteman. Aldaketa horiek bi helburu zituzten. Lehendabizi, ordutegia sinplifikatu nahi zen, ordutegi bereko aste-tarteen kopurua areagotzeko, bai nahitaezko irakasgaietan bai hautazkoetan. Psikoplan Plataforman, aste bakoitzean eman beharreko praktikako irakaskuntza-modalitate mota ezarri ahal izan zen, baita irakasgai bakoitzaren asteko orduen kargen salbuespenak ere. Bigarrenez, aldaketak sartu ziren hautazko irakasgaien ordutegian, hirugarren eta laugarren mailako ikasleei horien hautaketa errazteko. Horrela eratutako ordutegiak soilagoak dira, oraingo ikasketa-planaren irakaskuntzako bektoreak eta modalitate berriak sartu zirenean egindakoak baino. Hautazkoen ordutegiek, bestalde, modularitate bat dute hainbat

Minorretako irakasgaiak hautatzea errazten dutena, ezarritako bi urteko epean eskatutako hautazko kredituen kopurua osatu arte.

### **3.3. KANPOKO PRAKTIKAK EZARTZEA LAUGARREN MAILAN**

Graduko praktikak eta borondatezko praktikak kudeatzeko prozedura berria diseinatu da, ikasketa-planak eta unibertsitateko arautegiak ezarritakoaren arabera. Graduko Practicumaren kronograma berria diseinatu da, baita kanpoko praktiken kurrikularren irakaskuntza-gida ere.

Psikologia Fakultateko webgunean, Graduko practicumari buruzko informazio guztia sartu dute, behar bezala antolatuta. Informazio garrantzitsua da irakasle, erakunde laguntzaile eta ikasleentzako.

Amaitzeko, ikasleen prestakuntzarako hartutako konpromisoa dela eta, prozedura bat zehaztu da, eta hainbat jarduera martxan jarri dira, erakunde laguntzaileen instruktoerek eginiko lana saritzeko.

### **3.4. LAUGARREN MAILAKO GRAL-A EZARTZEA**

Sailei GRALerako gaien eskaintza eskatu zitzaien, bai eta gai bakoitzeko gehienez onartutako ikasleen kopurua ere. Era berean, GRALak zuzentzeko moduan dauden irakasleen zerrenda eskatu zitzaien.

Gaien eskaintza eta ebaluazio-irizpideak zehazten zituen ikasleen gida Ikastegiko webgunean argitaratu ziren, 2012ko irailean egindako aurre-matrikula baino lehen.

Aurre-matrikularen aldian, lehen lauhilekoaren azterketen ondoren aurre-matrikularako beste aldi bat irekitzeko beharra hauteman zen.

Aurre-matrikula egindako ikasle guztiei GRAL zuzendari bana esleitu zitzaien.

2013ko otsailaren 6an, bilera batera deitu zituzten sailtako zuzendariak eta idazkariak, eta GRALaren prozesua ordura arte nola garatu zen azaldu zitzaien. Era berean, ebaluazio-epaimahaiak eratzeko eskatu, eta diseinatutako ebaluazio-sistemaren berri eman zitzaien.

Amaitzeko, Gradu Amaierako Lan onenaren saria sortu da, berrikuntza eta ekintzailtza saritzeko asmoz.

### **3.5. MUGIKORTASUNA**

Ikasturte honetan, nazioarteko unibertsitate prestigiodunak identifikatu dira, hitzarmen berriak egiteko edo lehendik daudenak berritzeko.

Bestalde, Graduan, mugikortasun-adierazleen joera aztertu da; izan ere, hainbat faktorek eragiten diote mugikortasunari, hala nola ikasketak bost urtetik lau urtera aldatu izanak eta ekonomia-krisiaren eraginak, batzuetan

ikasleentzako beken zenbatekoa murriztea ekarri baitu eta beste batzuetan, berriz, beka erabat desagertzea, Seneca bekarekin gertatu den bezala. Faktore horien arabera, muga berriak finkatu dira mugikortasun-adierazleetan.

### 3.6. IKASLEAK LANERATZEKO EKIMENAK.

Psikologiako Jardunaldi Profesionalak diseinatu dira, eta 2013/14 ikasturtean egingo dira.

**Bigarren lauhilekoan hainbat bilera egin ziren Bic-Berrilan/Entreprenari-ekin, ekintzailatza eta gizarte-berrikuntza bultzatzeko eta babesteko IBILIAN programa diseinatzeari begira. Programa hau, funtsean, azken mailako ikasleei eta doktore aurreko eta ondoko bekadunei eskaintzen zaie, baita interesa izan dezaketen irakasleei ere. Programa 13/14 ikasturtean ezarriko da. Ezarri ondoren, IBILIAN programaren esparruan, ekintzailatzako gradu-amaierako lan onena saritzeko deialdia egingo da.**

### 3.7. PSIKOLOGIA-GRADUAREN PUBLIZITATEA EGITEKO JARDUERAK

2011-12 ikasturtean ikasleek eta irakasleek talde fokaletan izandako eztabaiden analisietatik abiatuta, ikusgarritasun-plan bat diseinatu da, non hautemandako gabezia-mehatxu nagusiak aztertzen baitira. ***Ikusgarritasun Plan*** horrek Fakultatearen 2011-2015ko ***Plan Estrategikoaren*** helburu hauei erantzun nahi die:

1. Psikologia Fakultatea erakunde enplegu-emaileetarako ezinbesteko erreferente izatea bultzatzea, erakunde horiek ezagutza eta berrikuntza sortzeko eta transmititzeko dituzten beharrei dagokienez.
2. Psikologia-zientziaren, psikologoaren eta Fakultatearen prestigioa areagotzea, balizko ikasleen eta enplegu-emaileen artean.

Ikasleen artean, hedabideetan eta enplegua eman dezaketen enpresetan Fakultateari buruzko ezagutza areagotzeko hainbat helburu proposatu dira. Ikusgarritasun-plan horretan proposatutako ekintzen artean, 2012-13 ikasturtean honako hauek egin dira:

- **Fakultatearen presentzia indartu da kanpoko hedabideetan.** Horretarako, arduradun bat sortu da dekanotza-taldean, solaskide gisa jardun duena Unibertsitateko Komunikazio Bulegoarekin eta, oro har, psikologiari lotutako gaietan adituak behar dituzten hedabideekin.
- Fakultateko **webgunea** aztertu, eta eguneratu da, eta formatu erakargarriagoa eman zaio. Aztertutako alderdi nagusiak honako hauek izan dira:
  - Eguneratutako informazioa.
  - Ikasleen etorkizunerako erakargarria eta ulergarria den informazioa.

- Ikasketen eskaintzari buruzko informazioa eskuratzeko erraztasuna.
  - Tituluen jarraipenerako beharrezkoa den informazio guztia biltzea.
  - Ikerketa-taldeak eta haien emaitzak ikustea.
  - Erraztasunak ematea administrazio-izapideak bide elektronikoz egiteko.
  - Ikastegiko helburuak eta kalitate-politikak, eta haien emaitza nagusiak eta lorpenak ezagutzera ematea (konpromiso-diplomak, AUDIT, Ekoskan).
- **Ateak Zabaltzeko Egunak** eta **Azokak** ezinbestekoak dira tituluari buruzko informazioa emateko psikologiako ikasketak egiteko interesa duten batxilergoko ikasleei. 2013ko otsailaren 19an, 26an eta 2an, Psikologia Fakultateak UPV/EHUK antolatutako **Unibertsitate Orientazioko Jardunaldian** parte hartu zuen. Hiru campusetan antolatutako jardunaldi horretan tituluen eskaintza ematen da ezagutzera. Interesdunei eskaintako banakako arretaz gainera, argibideak emateko hitzaldi bat egin zen, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Era berean, material idatzia banatu zen, hala nola triptikoak, irakaskuntza-gidak edo hitzaldien edukiak.

2013ko martxoaren 10etik 14ra **Ateak Zabaltzeko Egunak** egin ziren. Bertan, batxilergoko azken mailako ikasleak gure Fakultatera joaten dira goiz edo arratsalde batez, eta Psikologiako ikasketei buruzko hitzaldi labur bat eskaintzen zaie. Gero, Fakultateko instalazioak bisitatzen dituzte. Jardunaldi horietan dekanotza-taldeak, fakultateko irakasleek eta ikasleek parte hartzen dute.

Amaitzeko, azaroaren 12an eta 13an, UPV/EHUren Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak antolatutako **IV. Orientatzaileen Topaketan** parte hartu zuen Fakultateak.

### **3.8. IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

21 IKE jaso dira, eta guztiak ikasleek jarri dituzte. Horien artetik, zazpik eman dute ekintzaren bat egiteko aukera. Irakasle eta ikertzaileen kidegoari eta sailen irakaskuntza-plangintzari buruzko kexak izan dira. IKEak zegokien sailei eta inplikaturako irakasle eta ikertzaileei helarazi zitzaizkien, beharrezkoak ziren ekintzak egiteko. Gainerako IKEei eskatutako argibideak emanaz erantzun zitzairen, baina ez zen beharrezkoa izan horiei lotutako ekintzarik egitea.

### **3.9. KALITATEAREN BERMERAKO SISTEMA (KBS) AUDIT IRIZPIDEEN ARABERA EZARTZEAREN EGIAZTAPENA**

Gratu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak eta UPV/EHUren Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuak Psikologia Fakultatea gonbidatu zuten, KBSren diseinuaren ezarpena egiaztatzeko deialdi pilotuan parte hartzera, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (UNIBASQ) deitutako AUDIT programaren testuinguruan.

2013ko uztailean, Psikologia Fakultateak eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen, eta kanpoko ebaluatzaileek ikastegira eginiko bisitan parte hartu zuen. Bisita horretan, talde ebaluatzaileak elkarriketak egin zituen Dekanotza Taldearekin, Kalitate Batzordearekin, irakasle eta ikertzaileen talde batekin eta AZPko langileen talde batekin. Bilerak egiteko datak zirela eta, ikasleek ez zuten parte hartu ikuskaritzan.

2013ko urriaren 15ean, kanpoko ebaluatzaileen gomendioei erantzun, eta hobekuntza-plana egin ondoren, ziurtagiria lortu zen.

<b>BALIABIDEAK:</b>	<b>BALIABIDE</b>	<b>MATERIALEN</b>	<b>ETA</b>	<b>ZERBITZUEN</b>
<b>DESKRIBAPENA</b>				

Psikologia Fakultateak prestakuntza-ekintzak ongi egitea bermatzen duten baliabide materialak ditu:

- 23 gela eta ikasteko 6 laborategi informatiko, irakaskuntzarako beharrezkoak diren ekipoekin hornituta (ordenagailuak, proiektzio-kanoiak, DVDko irakurgailuak eta Internetarako konexioa).
  - Bi ordenagailu-gela, ikasleek erabiltzeko.
  - Balio anitzeko gela bat.
  - Praktikako laborategi bat.
  - Areto bat, mugikortasuneko eta masterreko ikasleentzat.
  - Areto Nagusia eta gradu-aretoa, hurrenez hurren, 261 eta 50 pertsonentzako edukiera dutenak.
- Batzar-aretoa.
- Dekanotzako bilera-gela.
- Bulego bat, Ikasleen Kontseilurako.
- Hari gabeko WI-FI sarbide-zerbitzua.
- Saitetako mintegiak, irakasleen bulegoak eta antzeko beste espazio batzuk.
- Idazkaritza.
- Atezaindegia.
- Erreprografia.
- Kafetegia, jantokia, mikrouhinen zerbitzuak eta beste batzuk.



## **GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA**

Fakultateko irakasleen % 95ek lanaldi osoa dute, eta horien artetik % 83,94 plantillakoak dira, eta % 16,06k, berriz, aldi baterako plazak betetzen dituzte. Irakasle eta ikertzaileen kopuru osoa egonkorra da, baina hautematen hasi dira plantillako irakasle eta ikertzaileen kopurua jaisten, eta aldi baterako kopurua, ostera, igotzen ari dela; izan ere, plantillako langileak erretiroa hartzen ari dira, eta horien ordean aldi baterako langileak jartzen dira, indarrean dagoen legediak langile iraunkorrak kontratatzea galarazten duelako.

% 81,08 doktoreak dira, eta % 24,32k hizkuntza ez-ofizialen egiaztapenak dituzte. Guztira, 98 seiurteko daude aitortuta. Ikasturte honetan, irakasleen % 26,47k etengabeko prestakuntza-ikastaroren batean parte hartu dute. Ikastegiak 4 prestakuntza-ekintza antolatu ditu, eta 5,15eko gogobetetze-maila lortu du (1-6 bitartean).

Irakasleen % 13,51 DOCENTIAZ programaren bidez ebaluatu dira. Ebaluazio guztiak positiboak izan dira, eta % 43,7k emaitza bikaina lortu dute.

AZPko langileen kopuruak (denboraldi osokoa) bere horretan eusten dio (18). Bi prestakuntza-ekintza antolatu dira, AZPko langileentzat, eta 4,76ko gogobetetze-maila lortu (1-6 bitartean).

<b>EMAITZAK: TITULUAREN JARRAIPENARI LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA</b>
---

### **1.- IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA**

#### **1.1.- Ikasleen eskaera**

Eskura ditugun datuek adierazten dute 2012-2013 ikasturtean Psikologiako titulua egiteko eskaera handia izan dela. 2012-2013 ikasturtean, 604 ikaslek Psikologiako ikasketak egitea eskatu zuten, lehen aukera gisa. Horrek esan nahi du eskaera % 8 igo dela, 2011-2012 ikasturtearekin alderatuta. Bigarren edo ondorengo aukera (1791) gisa Psikologiako ikasketak eskatu zituzten ikasleen kopurua jaitsi egin zen aurreko ikasturtearekiko; dena den, eskaera handia da oraindik ere.

#### **1.2.- Onartutako ikasleen kopurua eta profila**

2012-2013 ikasturtean, 254 ikasle onartu ziren guztira, eta horien artean 229k egin zuten behin betiko matrikula; hortaz, eskainitako plaza kopurua (250) kontuan hartuta, tituluaren okupazioa % 86,4 izan zen. Horrek esan nahi du %

6,8 jaitsi dela, joan den ikasturtearekin alderatuta. Adierazle hori hobetzeko zuzentze-neurriak hartu beharko dira.

Ikasle horien artetik, % 90,39k ikasketa hauek hautatu zituzten lehen aukera gisa (tituluaren egokitzapena), eta aurreko ikasturtean, berriz, % 80,85ek.

Matrikulatutako ikasleen jatorriari dagokionez, % 82,1 USPren bidez sartu ziren, % 11,8 LHtik sartu ziren, eta gainerakoak 25 urtetik gorakoak ziren. Datu horiek guztiak antzekoak dira, aurreko ikasturtekoekin alderatuta.

2011-2012 ikasturtearekin alderatzen badugu, ikasleen sarrerako kalifikazioen batezbestekoa igo egin zen. USP eginiko ikasleentzako onarpen-nota 6,2 izan zen; haatik, 2011-2012 ikasturtean 5,59 izan zen, eta 2010-11n, berriz, 5,59. LHtik etorritako ikasleei erreparatuta, gutxieneko nota 7 izan zen (horren aurrekoak 6,2 eta 5,5 izan ziren, hurrenez hurren). 25 urtetik gorako ikasleei dagokienez, gutxieneko nota 5,38 izan zen (aurrekoak 5,26 eta 6,15 izan ziren). Onarpen-nota 6,99 izan zen.

Matrikulatutako ikasleen hizkuntza-aukeraketari erreparatuta, gaztelaniazko lerroa jaitsi, eta euskarakoa igo egin dela hauteman daiteke. Joera horrek bere horretan jarraitzen badu, irakats-betebeharrean eta taldeen eraketan zer-nolako eragina duen aztertu beharko da.

## **2 . IKASKETA-ERRENDIMENDUA**

Emaitzak oso onak dira errendimendu akademikoko tasa guztietan; izan ere, errendimenduko tasen emaitza % 88 da (aurreko ikasturtean % 84,25), arrakastarenak % 93,01 (aurreko ikasturtean % 89,79) eta ebaluazioarenak % 94,64 (aurreko ikasturtekoak % 93,83).

Nabarmentzekoa da soilik hirugarren mailan jaitsi direla tasa guztiak pixka bat, nahiz eta emaitzak oso onak diren. Ikasturtea xehetasunez aztertuta, aipatu behar dugu, batetik, ikasle gutxi dituzten hainbat hautazkoren errendimendua okerragoa izan dela, eta, bestetik, adierazle-baliorik okerrera duen nahitaezko irakasgaiak % 74,24ko arrakasta-tasa duela. Tasa horren balioa ez da txikia, horren zailtasuna kontuan hartzen badugu.

Uzte-tasa % 7,29 da, tituluaren diseinuan aurreikusitakoaren antzekoa.

## **3. GOGOBETETZEA**

### **3.1 Ikasleen gogobetetasuna**

Ikasleek gogobetetzeari buruzko hiru inkesta erantzuten dituzte. Lehenak tutoretzaren erabilera, Fakultateko zerbitzuak eta jarduerak eta irakaskuntzaren hainbat alderdi aztertzen ditu. Bigarrenak ikasketekiko ikasleen gogobetetzea aztertzen du, eta hirugarrenak, berriz, laugarren mailako ikasleek egiten dute, praktikekiko gogobetetze-maila neurtzeko. Horrez gain, Erasmus mugikortasun-programako ikasleek atzerriko egonaldiari buruzko laugarren inkesta bati erantzuten diote.

**Tutoretzen** ordutegiei buruzko informazioa eskuratzeko moduari erreparatuta, ikasle gehienek moodle plataforma (% 81,23), Fakultateko

webgunea (% 75,08) eta irakasleen bulegoak (% 70,87) erabiltzen dituzte. Tutoretzak berriki hasi dira GAUR plataforman argitaratzen; hortaz, ikasleek oraindik ez dute aukera hori gehiegi erabiltzen (% 68,93). Tutoretzen ordutegiari buruzko lau informazio-iturri horiekiko batezbesteko gogobetetze-maila 3,3 da; balio onargarria, baina, gure ustez, hobe daitekeena.

Ikasleek gutxitan jotzen dute tutoretzetara (2,07ko batezbestekoa, 2-4 bitartean). Horretarako emandako arrazoi nagusiak hauek dira: horien beharrik ez izatea (% 58,25) eta eskolako ordutegiarekin bateragarria ez izatea (% 53,7). Datozen ikasturteetan, bigarren arrazoi hori aztertu, eta hobetu beharko da.

Ikasleak, gehien bat, lanak aztertzeraz eta azterketak berrikustera joaten dira tutoretzetara. Azkenik, tutoretzetan jasotako arretarekiko gogobetetze-maila onargarria (3,27, 1-5 bitartean) da, baina hobe daiteke.

**Fakultateak zabalduko informazioari dagokionez**, eskasa da batez beste lortutako gogobetetze-maila. Informazioari buruz ongien baloratutako alderdiak dira, batetik, kalifikazioak argitaratzeko modua eta lekua (3,34), eta, bestetik, ordutegiari buruzko informazioa (3,05). Azken hori hobetzeko hainbat ekintza egin dira ikasturte honetan, joan den ikasturtean eginiko ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta.

Fakultateak informatzen duen gainerako alderdiei erreparatuta, balorazioen batezbestekoa ez da iristen 3ra (1-5 bitartean), Dekanotza Taldeak informazioa hobeto zabaltzeko ahaleginak egin dituen arren. Datorren ikasturtean, alderdi hori hobetzeko ekintzak egin beharko dira.

Irakaskuntzaren hainbat alderdiri buruzko gogobetetzeari erreparatuta, puntuazio egokiak (1-5 bitartean) lortu dira hauetan: irakaskuntzan laguntzeko moodle plataforma (3,74), etengabeko ebaluazioa (2,89) eta edukien koordinazioa (2,82). Zereginen koordinazioak (2,62) eta haren denbora sekuentziazioak (2,36), ordea, ez dute puntuazio egokirik lortu, arlo horretan ahaleginak egin diren arren. Horrek erakusten digu nahitaez indartu behar dela irakasle-taldearen arteko koordinazioa. Amaitzeko, mailako koordinatzaileen lanak jaso du baloraziorik okerrera (2,55). Puntuazio hori, ordea, ez dator bat tituluko koordinatzaileen iritziarekin, hark oso ongi baloratzen baitu mailako koordinatzaileen lana. Hortaz, hobekuntza-ekintzak egin beharko dira, figura akademiko horren lana zabaltze aldera.

Irakaskuntzarekiko gogobetetzearen balorazioari erreparatuta, irakasleen irakaslanari buruz ikasleei eginiko iritzi-inkestaren emaitzak oso onak dira. 176 txostenen (irakaskuntza-egoerak) ebaluazioak 4,1eko batezbestekoa eman du, gogobetetze-maila orokorraren barruan (1-5 bitartean). Nabarmendu behar dugu soilik 7 irakaslek jaso dutela 3,1 baino gutxiagoko batezbestekoa eta, nolana ere, 2,4tik gorakoa izan dutela guztiek.

Mugikortasunaren balorazioa: balorazioa oso altua izan da (1-5 bitartean), bai ekarpen akademikoan (3,94) bai emaitza pertsonalean (4,15), eta haren ebaluazio globala 4,6 izan da.

Kanpoko praktika kurrikularren balorazioa: inkesta hau 2012-2013 ikasturtean egin da lehenengoz. Bi atal ditu: gestioa eta antolakuntza UPV/EHU, eta

praktiketako zentroa. UPV/EHUren gestioan eta kudeaketan 3.4 puntu lortu dira (1-5 bitartean), eta praktiketako zentroan, berriz, 4.2 puntu. Ikasleek uste dute praktikek laneko errealitatea ezagutzea ahalbidetu dietela (4.4) eta haien ezagutza teorikoa errealitatera aplikatzeko lagungarria izan direla (4.1). Egindako praktikekiko gogobetetze-maila orokorra 4.2 puntukoa da.

### **3.2 Irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen gogobetetzea**

Inkesta horiek bi urtean behin egiten direnez, ikasturte honetan ez dugu horri buruzko emaitzarik

## **OSASUN-PSIKOLOGIA OROKORREKO MASTER TITULUAREN TXOSTENA**

**Osasun Psikologia Orokorreko Masterra diseinatzeko eta egiaztatzeko prozesua.**

Prozesua hasteko, dekanoa proposamena egiten parte hartu zuten sailekin jarri zen harremanetan. Jakintza-arlo horretan prestigioa duten pertsonekin harremanetan jarri, eta OPO masterraren proposamenaren eraketan parte hartzea proposatu zitzaien.

Gero, dekanook Osasun Psikologia Orokorreko Masterraren Ikasketa Planaren Batzordea eratzea proposatu zion Fakultateko Batzarrari. Batzorde hori, dekanook koordinatuta, honako hauek osatu zuten: lehen aipatutako pertsonen -guztiak ere Masterraren irakaskuntzan inplikaturako sailtako kideak eta ordezkariak dutenak dagokien sailaren barruan-, Ikasleen Kontseiluak izendatutako ikasleen ordezkari batek, eta AZPko langile batek. Ikasketa Planaren proposamen bat adostu, eta Fakultateko irakasle eta ikertzaile guztiei eta AZPko langileei banatu zitzaien. Gero, Fakultateko Batzarra deitu zuten, Masterraren proposamena aurkezteko eta onartzeko; prozedura hori bera bete zen masterraren irakaskuntzan parte hartzen duten hiru sailtan. Masterra onartzeko txostenak igorri ondoren, proposamena UPV/EHUren Graduondoko Unitatera igorri zen, eta gero, hurrenez hurren, Doktoregoko Azpibatzordeak, Doktoregoko Batzorde Akademikoak eta 2013ko ekainaren 20ko Gobernu Kontseiluak ebaluatu, eta onartu zuten. Ondoren, txostena bidali zitzaien bai ANECari bai UNIBASQi, haien egiaztapena eskuratzeko.

2013ko azaroaren 14an, aldeko amaierako txostena jaso zen, gomendiorik gabe, alde aurretik agintziak aurkeztutako alegazioen erantzunak bidalita.

ANECaren egiaztapena egiteke dago.

## EKINTZEN PLANA 2013/14 IKASTURTERAKO

Kalitate-agentzien aholku eta oharretatik eratorriak (Aneca, Uniquel, Unibasq):

IZENBURUA	DESKRIBAPENA	OHARRAK	PROZEDURA
UNIQUAL OHARRA	TXOSTEN EKONOMIKOA: Unibertsitate-irakaskuntza ofizialari lotutako sarrerak, gastuak eta inbertsioak.	Aholku hau ezin da bete, Zerbitzu Zentralen eskumena delako.	1.3.1, Ikasketak proposatzea eta aldatzea
AUDIT EZARPENA. UNIBASQ AHOLKUA 1.2.2. AZPIIRIZPIDEA	Ez da ebidentziarik aurkitu ikastegiak eskaintzen dituen titulazioak ingurunera eta egungo egoera ekonomikora bizkor egokitzeari lotutako mekanismoei buruz.	Honi dagokionez AUDIT eta ACREDITA programek dituzten betebeharrak aztertzea eta aholkua betetzeko ekintza egokiak diseinatzea.	1.3.1, Ikasketak proposatzea eta aldatzea
AUDIT EZARPENA. UNIBASQ AHOLKUA 1.1.3. AZPIIRIZPIDEA	Ez da ebidentziarik ikusi interes-taldeek titulazioen plangintzan, garapenean eta berrikuspenean izan lezaketen parte-hartzeari buruz, ikastegiko kide anitzeko organoetako parte-hartzetik harago.	Honi dagokionez AUDIT eta ACREDITA programek dituzten betebeharrak aztertzea eta aholkua betetzeko ekintza egokiak diseinatzea.	1.3.1, Ikasketak proposatzea eta aldatzea

<p>ANECA AHOLKUA. 5. IRIZPIDEA: IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA</p>	<p>Kontuan hartuz titulua Osasun Zientzien adarrari atxikitzen zaiola, beharrezkoa da, gutxienez, kanpoko praktiken 6 ECTS Psikologia Klinikoa eta Osasun Psikologiaren arloan garatzea. Baliozkotzat jotzen da honako hauen txandaketa: ospitaleak, lehen arretarako zentroak, zentro sozio-asistentzialak, eguneko ospitaleak, droga-mendekotasuna dutenen arretarako unitateak, buruko osasuneko edo familia-plangintzarako unitateak, Gurutze Gorriaren sareko zentroak edo klinikak edo antzeko beste erakunde batzuk, eta tokiko udalbatzen mendekoak diren oinarrizko zentroak edo unibertsitateen beraien asistentzia-zentroak, betiere psikologiaren arloko jarduera asistentzialak ziurtatzen badituzte.</p>		<p>1.3.1, Ikasketak proposatzea eta aldatzea</p>
<p>AUDIT EZARPENA. UNIBASQ AHOLKUA 1.4.7. AZPIIRIZPIDEA</p>	<p>Ez da ebidentziarik ikusi baliabide materialen eta zerbitzuen erabilerari lotutako kontu-emateari buruz. Kontu-ematea alderdi ekonomikoen deskribapen hutsetik harago doa. Kudeaketa-sistemako adierazle guztiak aztertzea eta gastuarekin aurreikusitako helburuak betetzea ere barne hartzen ditu.</p>	<p>Honi dagokionez AUDIT eta ACREDITA programek dituzten betebeharrak aztertzea eta aholkua betetzeko ekintza egokiak diseinatzea.</p>	<p>4.1. Kudeaketa ekonomikoa</p>
<p>AUDIT EZARPENA. UNIBASQ AHOLKUA 1.5.6. AZPIIRIZPIDEA</p>	<p>6.1 Analisia, Berrikuspena eta Hobekuntza prozedurak ez du behar beste argitzen nola parte hartzen duten interes-taldeek prozesuetan. Prozesu-taldeetako parte-hartzaileak nortzuk diren adierazten duten</p>	<p>Prozesu-taldeetako kideei lotutako ebidentziak jasotzea. Koadro bat osatzea eginiko bilerekin, adostutako hobekuntzekin eta parte-</p>	<p>6.1. Analisia, berrikuspena eta hobekuntza</p>

	ebidentziak jaso beharko lirateke. Gainera, koadro batean, eginiko bilerak, adostutako hobekuntzak eta kasu bakoitzeko parte-hartzaile errealak jaso beharko lirateke, sendotasuna emateko azpiirizpideak eskatutakoari.	hartzaile errealekin.	
UNIBASQ 3 AHOLKUA JARRAIPEN TXOSTENA: Agentzien txostenetako aholkuak direla-eta Unibertsitateak eginiko ekintzak	Ekintza gehiago egitea tituluaren diseinuak egokiago bete ditzan egiaztapenerako eta baimenerako ebaluazio-irizpideak, kontuan izanda egiaztapen-txostenak eta baimen-txostenak eginiko aholkuak. Edo, ezarritako aholkuei dagokienez hobekuntza-ekintzarik ez egitea arrazoitzea.	Aurreikusitako ekintzak egiaztapenaren eta akreditazioaren ebaluazio-irizpideetara egokitzen diren berrikustea.	1.3.4, Tituluaren jarraipena eta akreditazioa
UNIBASQ 2 AHOLKUA JARRAIPEN TXOSTENA: Kalitatearen Barne Bermerako Sistema	Tituluaren jarraipenerako autotxostenak ez du nahiko informaziorik jakiteko martxan jarri diren edo ez ikastegiko Kalitatearen Barne Bermerako Sistemari aurreikusita dauden prozedura guztiak.	Eskatutako informazioa jarraipen-txostenari gehitzea.	1.3.4, Tituluaren jarraipena eta akreditazioa
Unibertsitatean sartzen direnen eta irteten direnen profilak	Profil horiek berrikusteko modua diseinatzea, eguneratuak edukitzeko.		1.3.3., Sarrera- eta irteera-profilak



Analisi-, berrikuspen- eta hobekuntza-prozesutik eratorriak:

IZENBURUA	PROZEDURA
Psikologiako Jardunaldiak antolatzea.	1.2., Urteko Kudeaketa Plana
Bultzada ematea sailei Psikologiako Jardunaldien antolakuntzan ideien eta baliabideen bidez lagun dezaten.	1.2., Urteko Kudeaketa Plana
Irakasleak erakartzea Unibertsitate Orientazio Jardunaldietara eta Ateak Zabaltzeko Egunetara. Errektoreordetzak kredituen bidez parte-hartzea bultzatzeari utzi dionez, beste sistema bat sortu behar da irakasleek beren aisia-orduak (larunbatak) lan egiten erabil ditzaten.	2.1, Ikasleak erakartzea
Prozedura egokitzea taldeen tamainari buruzko arautegi berrira eta Leioako irakaskuntza-plangintzako estrategia berrira.	2.4.2, Irakaskuntza-plangintza
Irakaskuntza Plangintzako Prozedura egokitzea Psikoplan aplikazioa martxan jartzeak eta hautazkoak bateragarri egiteko hartutako neurriek eragindako aldaketetara, datorren ikasturtean zehar.	2.4.2, Irakaskuntza-plangintza
Sailei informazioa ematea matrikulak hizkuntza-lerroaren arabera duen bilakaerari buruz, irakats-betebeharrean izan dezakeen eraginagatik.	2.4.2, Irakaskuntza-plangintza
Kanpoko praktiken ebaluazio-galdetegiak betetzera bultzatzea ikasleak, barne-tutoreak eta praktiketako instruktoreak.	2.4.3, Kanpoko praktikak
Kanpoko praktikei buruzko urteko txosten labur bat egitea, interes-taldeen artean zabaltzeko: ikasleak, praktiketako zentroak, eta irakasleak eta ikertzaileak.	2.4.3, Kanpoko praktikak
Ikastegiaren web orrian Borondatezko Praktikei buruz bildutako informazioa hobetzea.	2.4.3, Kanpoko praktikak

Edukien koordinazioa hobetzea kanpoko curriculum praktiken eta practicumera sartzeko irakasgaien artean.	2.4.3, Kanpoko praktikak
Ikasleek, barne-tutoreek eta praktiketako inktoreek webgunean kanpoko praktikei buruz jasotako informazioa eta dokumentazioa erabiltzea sustatzea.	2.4.3, Kanpoko praktikak
Praktiketako inktoreen lana aitortzera bideratutako jarduerak indartzen jarraitzea.	2.4.3, Kanpoko praktikak
Kanpoko Praktiken Prozedurari lotutako adierazleak/emaitzak berrikustea eta, beharrezkoa izanez gero, aldatzea.	2.4.3, Kanpoko praktikak
Irakasle guztientzako inprimaki bat egitea, irakasgaien irakaskuntza-taldean koordinazioaren hainbat alderdiri buruz eta metodologia aktiboen erabilerari buruz.	2.4.4, Irakaskuntza Koordinazioa eta Irakaskuntza Gida
Zeharkako gaitasunen garapeneren jarraipena eta horiek ebaluazioan sartzea graduan zehar.	2.4.4, Irakaskuntza Koordinazioa eta Irakaskuntza Gida
Sailei ekintza-plana eskatzea, edukien gainezarpenik eza bermatzeko eta irakasgaien koordinazioa betetzeko.	2.4.4, Irakaskuntza Koordinazioa eta Irakaskuntza Gida
Sailei tutoretzaren programazioaren berrikuspenera eskatzea, ikasleen irakaskuntza-ordutegiarekin bateragarri egiteko.	2.4.4, Irakaskuntza Koordinazioa eta Irakaskuntza Gida
Gradu Amaierako Lanaren ezarpenaren jarraipena.	2.4.6. Gradu Amaierako Lana
IBILIAN programaren ezarpena eta jarraipena (ikasleen, bekadunen eta irakasleen artean erakundeak sortzeko ekimena eta berrikuntza bultzatzeko prestakuntza-programa).	2.4.7. Prestakuntza osagarria

2.10 prozedura egokitzea LANBILA berrira.	2.4.8, Lanbide-orientazioa eta lan-munduan txertatzea.
Psikologiako Jardunaldi Profesionalak egitea.	2.4.8, Lanbide-orientazioa eta lan-munduan txertatzea.
Titulazioaren hainbat alderdi baloratuko dituen galdetegi berri bat diseinatzea, unibertsitatetik irteten direnentzat.	2.4.8, Lanbide-orientazioa eta lan-munduan txertatzea.
Psikologoek elkargoarekin eta beste antolakuntza profesional batzuekin koordinatzea etengabeko prestakuntzako ekintzak diseinatzeko eta antolatzeko.	2.4.8, Lanbide-orientazioa eta lan-munduan txertatzea.
Masterra ezartzea	2.12 Graduondokoa
Masterraren kanpoko praktikak ezartzea	2.12 Graduondokoa
Masterraren prozedurak diseinatzea	2.12 Graduondokoa
Harrera Gidak egitea irakasle eta ikertzaileentzat, AZPko langileentzat eta ikertzaile kontratudun edo prestakuntzan daudenentzat.	3.1, Hautapena eta Harrera
Ekoskan ziurtagiria berritzea	4.3. Baliabide eta Zerbitzuen Kudeaketa
Indarreko legediak euskarak ikastegian duen presentzia, erabilera eta kudeaketari buruz ezarritako aholkuak eta estandarrak zer mailatan betetzen diren ebaluatzea.	5.1, Informazioaren eta Komunikazioaren Kudeaketa

Jardueren txosten bat egitea (itxuraz erakargarria eta hizkuntza egokiarekin) ikasle potentzial, bigarren hezkuntzako ikastetxe eta erakunde enplegatzaileentzat, bereziki nabarmenduz jarduera ikertzailea.	5.1, Informazioaren eta Komunikazioaren Kudeaketa
Ikasleen talde fokalak: Ikasleak komunikazioaren kudeaketarekin gustura ez egotearen arrazoiak aztertzea (mugikortasuna, ikasketa-plana, Gradu Amaierako Lana, ikasturte-koordinazioa...).	5.1, Informazioaren eta Komunikazioaren Kudeaketa
Fakultatearen presentzia sendotzea kanpoko komunikazio-bideetan: Interlokuzioa: Euskampus, Komunikazio Bulegoa	5.1, Informazioaren eta Komunikazioaren Kudeaketa
Publizitate- eta marketin-estrategiek eskain ditzaketen aukerak aztertzea, beste unibertsitateek jada egiten duten moduan.	5.1, Informazioaren eta Komunikazioaren Kudeaketa
Ikastegiko web orrian bildutako informazioa hobetzea (kantitateari eta antolakuntzari dagokienez).	5.1, Informazioaren eta Komunikazioaren Kudeaketa
Ikusgarritasun Plana ezartzea	5.1, Informazioaren eta Komunikazioaren Kudeaketa
Tutoretza Planaren analisisa, berriz aztertzea eta hobetzea	2.4.4, Irakaskuntza Koordinazioa eta Irakaskuntza Gida

